

7.1. Animalia migratzaileak

a BALEA URDINA

Balea urdina bezalako makinaria biologiko erraldoia mantentzea ez da erraza. Krustazeo ñimiñoek osatzen duten krilla da baleen elikagai ohikoena, eta janari hori non dagoen jakitea ezinbestekoa dute bizirik iraun ahal izateko. Ez da edonolako kontua: eguneko hiru tona janari prozesatzeko ahalmena du zetazeo haue-tako bakoitzak.


Janaria ur hotzetan lortu ohi duten arren, hainbeste elikagai ez dagoen ekuatore aldeko ur be-roetan hazten dituzte balekumeak. Hori zergatik egiten duten eboluzioaren misterioa da, teoriarik, bederen, ur hotzetan kumeak hazteko arazorik ez bailukete izango.

Antza denez, baleek aspalditik egiten dute gaur egun egiten duten migrazioa; beraz, bereziki oroimenean oinarritzen dira. Hala ere, badute malgutasuna baliabideen arabera ibilbide hori aldatzeko ere. Biologoek ez dakitena da zer gertatuko den klima aldaketaren ondorioz janaria dagoen lekuak aldatzen badira. Izan ere, kasu horretan, orain arte lagungarri izan duten oroimena animalien kontra bihur liteke.



7.1. Animalia migratzaileak

b AINGIRAK




Aingirak Sargazoen itsasoan ateratzen dira arrautzetatik, Bermudak dauden itsasoan. Jaiotako larba hazi egiten da, eta bospasei zentimetroko tamaina eta gramo eskaseko pisua hartutakoan, angula izenez ezagunak diren aingira txikiek 4.000 kilometroko bidaia egiten dute Gipuzkoako itsasadarretara, besteak beste.

Ibaitan elikatzen eta hazten dira. Haien garapen-aldiaren arabera, izen ezberdinez dira ezagunak, aingira zilarkarak heldutasun sexuala lortzen duen arte. Ugaltzeko gai dira, baina arrautzak Sargazoen itsasoan baino ez dituzte erruten, han dagoen alga flotatzaileak horretarako oso egokiak baitira. Beraz, jaiotako itsasorako itzulera-bidaia egin behar dute hamar urte geroago. Bidaiari ekiteko momentuan, jateari uzten diote, kloaka ixten dute eta beren jaiolekura bidean itsasoratzen dira, berriro ur gazitara egokituta. Hara heldutakoan, lur jota eta gorputz-masa erdia galdu dutela, ugaltzeko eta hil egiten dira.

Nola gogora dezakete hamarkada baten ostean bueltako bidea zein den? Bada, antza denez, joaneko bidaietan, angulen zentzumen magnetikoak ur korronteen mugimenduen memoria inprimatzen die, eta oroimena esker lortzen dute 4.000 kilometro atzera egin eta Sargazoen itsasora itzultzea.

7.1. Animalia migratzaileak

IZOKINAK



Izokinak ibaietan ateratzen dira arrautzetatik eta ibaietan ematen dituzte beren bizi-zikloaren lehenaldiak. Garai horretan “parr” izena dute arrainek. Gero, ale gazteak itsasora joaten dira, eta han gizendu ondoren, ibaira itzultzen dira errutera.

Ur gezatara egokituta jaiotzen dira, baina kontuak aldatu egiten dira itsasora doazenean, bertako uraren gatz-kontzentrazioa oso altua baita, izokinaren barnekoa baino askoz ere altuagoa. Beraz, lekualdatzea gauzatzeko, hil ala biziko aldaketa egin behar dute *parr* gazteek: brankien bitartez gatzak eskuratzetik gunere beretik gatzak kanporatzera igaro behar dute. Horretarako, baina, gatzak kanporatzen dituzten zelula berriak sortu behar dituzte, eta luze samar jotzen du prozesuak. Aldaketak gertatu ondoren, itsasoratzeko prest dago izokina. “Smolt” izena ematen zaio orduan.

Kontu hori ondo ezagutzen da gaur egun, izokinen hazkuntzarako ezinbesteko ezagutza baita. Izan ere, izokinen biologia ezezaguna zenean, ale asko hiltzen ziren haztegietan. Bizi-ziklo osoa bete behar da espezie honen hazkuntza intentsiboan, eta, horretarako, ur gezatik ur gazirako aldaketa kontrolpean egin behar da urmaeletan. Espeziearen biologia ezezaguna zenean, askotan uraren gazitasuna arinegi aldatzen zen, izokinak prest egon gabe, ez baitzuten astirik izan gatzak kanporatzeko zelulak sortzeko. Ondorioz, parr gazteak hil egiten ziren. Hori dela eta, izokinen hazkuntzak ez zuen arrakastarik lortu parr-smolt trantsizioaren xehetasunak ondo ezagutu arte. Geroztik, etengabe gora egin du izokinaren hazkuntzak.
